

# Madeleine

## Itzali ezin den su hura

Dokumentaletarako musika egiten zutela esan diete Madeleine taldekoei, *Arrakala* edo *Kortxoenea*, *irautea sortzea delako* dokumentaletan egindako ekarpenagatik. Baina donostiarren *Su Hura* hirugarren lanak aldaketa dakar euren orain arteko ibilbidearekin alderatuz gero, bai mamiz, bai azalez. Udan grabatu dute Gaztain estudioan, Zestean, Eñaut Gaztañagaren eskutik; eta grabatzen ari ziren egun batean sartzen ere utzi ziguten, bertan ikusi eta entzundakoak kontatu ahal izateko.



**Xalba Ramirez**

@xalbaram

ARGAZKIA: MADELEINE-K UTZIA

“Disko hau oso ezberdina da, orain arte egin dugunarekin aldean”, dio Itzali Urangak. “Orain arte post-rocka egiten omen genuen, baina orain jada ez gaude eroso estilo horrekin”. Estilo horretara gehien hurbiltzen den kantari *Postrock* deitu diote, horren seinale.

Jagoba Salvador (baxua), Jon Iñaki Benito (bateria), Gartxot Unsain eta Itzali Uranga (gitarrak eta ahotsak) laukoteak, duela hiru urte grabatu behar zuen diskoa, baina osasun arazoengatik, suspentitu egin behar izan zuten, kasik estudioa sartzera zihoazen egunean bertan. Ordutik hona kantak “izugarritzko garapena” izan dute, taldekideen ustetan. Hasierako riff-ak mantendu diren arren, beste abesti batzuk bihurtu direla uste du Unsainek. “Lehen Madeleinen gauza guapoen jarraipenak ziren kantak egiten genituen. Eta hori gustatzen zitzaigun, baina beste zerbait behar genuen”.

Kantak, beraz, “osotasun gisa” hartu dituzte; eta “lehen aldiz”, egituran pentsatzen aritu dira. Gustatzen zaizkien abestiak entzun eta, egiturak, garapenak, igoerak eta jaitsierak identifikatu dituzte; eta Madeleinen kantetara moldatzen saiatu dira. “Egitura poperoa-

goak” direla baieztatu dute, baina hemen pop piezak aurkitu nahi dituenak ondo bilatu beharko du: jarraitzen dute rock taldea izaten, post edo ez.

Groove-ak ere sinplifikatzeko ahalegina egin dute eta bateria eta baxu lerroak gehiago zehaztea izan da erronka. Argi utzi nahi dute denek, ordea, horrek ez duela esan nahi kantak errazagoak direnik, edo lan gutxiago eskatu dutenik: “Batuetan errazagoa da zati ezberdin gehiago egitea, gutxirekin kanta on bat egitea baino”, dio Unsainek, gainontzekoek baietz adierazten duten bitartean.

Egiturak pentsatzearekin batera, taldean sortzeko modua garatzen joan direla kontatu dute. “Batuetan oso zaila da taldean konposatzea, eta askotan gertatzen da ideia bat eramaten duzula lokalera eta taldekideen eraginez beste zerbait bihurtzen dela. %25eko lau zatiren baturak ez du zertan %100 eman”, dio Unsainek. Prozesu horrek duen indarra ezkutatu gabe, disko honetan saiatu dira ideia originala errespetatzen. “Ideia eraman duenak izan du azken hitza, eta horrela lortu dugu konposatzean izaten den su-txinparta hori errespetatzea”.



### Gaztain estudioan taldekide bat gehiago

Lagunez osatuta egiten dute Madeleinekoek musika. Lagunekin sortu, jo eta grabatu. Horregatik jo dute Gaztañagarengana, aspalditik ezagutzen dute-eta elkar. Grises talde zestoarreko gitarra



jolea izateaz gain, bere estudioa dauka, eta bertan aritzen da taula gainean ez dagoenetan. “Konfiantza horren bila etorri gara”, dio Unsainek. “Berak badaki zer nahi dugun, eta esku hartzen uzten diogu”. Bere gitarrak, pedalerak eta anpliak erabili dituzte grabatzeko: “Itzalek

ekarri du bere gitarra badaezpada, baina nik hori ere ez!”, dio barrezka.

Lan egiteko modu aproposa aurkitu dute estudioan, nabari da. Kantak egituratuta dauden arren, ideia berrietara irekita utzi dituzte, eta denen artean osatzen doaz konponketak. Gu joan garen egunean, Jon Horna ere aritu da *Sumendi* abestian kolaboratzen gitarrekin; berak eta Gaztañagak taldeko kideak dirudite hemen. Azken honek ere, noizbehinka gitarra hartu du ideiak proposatzeko: *Perkalenea* kantaren amaieran, adibidez.

Efektu-pedal sorta ederak osatzen du Gaztañagaren pedalerak. Taldeki-deek aitortu dute batzuk zertarako diren ere ez dakitela, droper-a kasu –afinazioa aldatu behar izanik gabe, gitarra tonuz aldatzen duen pedala-. Madeleinen musikak badu efektu ambientetik eta proba ezberdinekin aritu dira jolasean. *Inoiz lehortuko da* abestian, adibidez, fuz grabeko gitarra bat bikoiztu dute, atze-atzetik, zarrata gehitzearekin batera kantari bestelako iluntasuna eskainiz.

Delay eta Chorus guztiak egiteko ordenagailuko plugin-ekin nahikoa duela dio Gaztañagak; gitarren arpegio eta riffetan abestiak erabat irekitzea lortzen du honela. Ez da erraza izaten hitzez soinuak deskribatzea, baina hainbat onomatopeia artean ederto ulertzen dira –oharra: hurrengoan bideo kamera

eramango dugu, horiek ere jasotzeko–.

### Hitzak jolaserako bide

Madeleinen lehen diskoan (2009) gutxi ziren letra zuten kantak eta *Mugarri*-n (2013) hitzek zentralitatea irabazi zuten arren, lelo borobil gutxi batzuk

baino ez zituzten. *Su Hura*-n aldiz, pisu berezia hartu dute, eta ederki landu dituzte.

“Egunerokotasuneko gauzei buruz aritu gara, nahiko gertuko eran”, dio Unsainek, bera baita letra egile nagusia. *Perkalenea*-n, adibidez, beraien pisuari omenaldi bat egin diote eta *Inoiz lehortuko da* taldeari buruz ari da.

*Nahi on bat*, *Inoiz lehortuko da* eta *Sumendi* kantetan nabaritzen da gehien, letra eta egituren arteko oreka hori. Estrofa eta leloak; doinu itsaskorrak eta jolas instrumentalak; eta indarra eta harmoniaren arteko oreka baita Madeleine.

Salbuespena izan daiteke Inongo garen singlea, horrek gogorarazten du gehien *Mugarri* diskoako Madeleine –joan den maiatzean kaleratu zuten bideo klip kurioso batekin–: gitarra jolasak eta letra gutxi. *Postrock* kanta da instrumental bakarra.

Gartxot Unsainek Youtubeen autotune-arekin abesten ezagutu genuen *Hura* kantak, bestalde, tarte berezia merezi du. *Mugarri*-ko *Berlin* gogoratzen duen pieza indartsu, itsaskor eta borobila da. Diskoari izenburua ematen dion hitz-jokoa ere kanta honetatik dator: “Dena da hain azaleko itxaropen.../ Halabeharrez jaio edo zoriak hil gintuen? / Aurkituko al dugu hura egarritz hil baino lehen?”.

### Bidean berriz ere

Baliabide publikoak beharko luketenak lehiaketa bihurtu dituen Kutxa Kultur programaren barruan, urte oso batez entsegu lokala izan dute Tabakalera eta diru laguntza ere bai, diskoa grabatu ahal izateko. Horren bitartez, hainbat kontzertu eskaini zituzten madeleindarrak joan den ikasturtean Kutxa Kultur fundazioak parte hartzen duen ekimenean.

Abesti berriekin eta “leku berriak eza-gutzeko” prest, irailaren 28an hasiko du bidea berriz ere taldeak. Donostiako Urgull mendiko Guardetxean izango da lehen zita, “festa moduan eta lagun artean, dena egin ohi dugun bezala”: Oki Moki, Pick a Bear eta DJ Spotifai-rekin. Ondoren, urriaren 6an Orion, 7an Urretxun, 12an Baionan eta 20ean Urnietan arituko dira.

Ez galdu aukera. Diskoa ona da, eta zuzenekoa hobea. Hasieratik zuten lagunen arteko su hura ez delako itzali, ziurrenik. ■